

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso
Como Amigo de Número de la Real Sociedad Bascongada de
XABIER ALBERDI LONBIDE

Suplemento 22-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
2017



Harbil Etxaniz, Amiga de Número
 Xabier Alberdi, Nuevo Amigo de Número
 Koro Segurola, Amiga Supernumeraria



Xabier Agote, Albaola Elkarteko Presidentea
 Julian Serrano, Amigo de Número
 Xabier Alberdi, Nuevo Amigo de Número
 Fernando Txueka, Amigo de Número



ALABAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA



Xabier Agote, Albaola Elkarteko Presidentea
Julian Serrano, Amigo de Número
Xabier Alberdi, Nuevo Amigo de Número
Fernando Txueka, Amigo de Número



Nao San Juan



Joxan Goikoetxea soinuan
Ander Letamendia, Adiskide Numerarioa, txistuan









Amigos de Número de la Bascongada

AGURRA / SALUDO

Julián Serrano Martín
EAEko Idazkaria Gipuzkoan
Secretario de la Bascongada en Gipuzkoa

Arratsalde on eta ongi etorri guztioi Albaolako areto honetara. Bereziki Xabier Agote Albaola Elkarteko Presidentea. Gurekin dago Fernando Txueka, Adiskide Numerarioa. Xabier Alberdi Lonbide bere lagun mina da eta Fernandok egingo dizkio harrera hitzak.

Bascondagako ekintza akademikoa da hau. Gure Elkarteak bere baitan hartzen du gaur Xabier Alberdi Lonbide, ikertzaile eta historialaria.

Ohitura legez, Baskongadaren bi Adiskideek lagunduko diote Xabierreri bere sarreran mahaiko bere lekura. Habil Etxaniz eta Koro Segurola izango dira.

Zutitu gaitzen, txalo bero batekin harrera egiteko. Puestos en pie, recibámosles con un fuerte aplauso.

Diré que estamos en un lugar emblemático desde el que partieron en otros tiempos numerosas embarcaciones. La propia Bascongada fomentó el comercio con América a través de la Compañía de Caracas y por tanto el uso y empleo de este tipo de instalaciones. En 1784, en el seminario de Bergara, se instituye-

ron premios de Náutica. Para acceder a ellos se examinaba a los Socios exigiéndoles el conocimiento de todo un tratado de náutica. Diremos que incluso Vicente de Lili, que fue uno de los fundadores de la Bascongada junto a Peñaflores era guardiamarina por la escuela de Cádiz; allí había estudiado entre otros temas el Compendio del arte de la Navegación y Trigonometría aplicada a la Navegación, Cedillo P.M. (Sevilla, 1717) y (Sevilla, 1718), .

Hoy Xabier Alberdi aporta un tema interesante como lección de ingreso: **Elkanoren sindromea-ren gainditzea: euskal itsas historiaren ikerketa, ezagutza eta hedapena bultzatzaren beharra.**

La Bascongada le dedicó a Juan Sebastián de Elcano (1476-1526) un elogio en 1771 presentando y leyendo una copia del privilegio de armas que Carlos V despachó a este célebre guipuzcoano en 20 de Mayo de 1523. (Primus circumdidisti me).

- Elcano fue contemporáneo de Nicolás Copérnico (1473-1543), matemático y astrónomo polaco que describió por primera vez la rotación y la traslación de los planetas. Su teoría establecía que la Tierra giraba sobre sí misma una vez al día, y que una vez al año daba una vuelta completa alrededor del Sol. Además, afirmaba que la Tierra, en su movimiento rotatorio, se inclinaba sobre su eje.
- Elcano, nació cien años antes que Johannes Kepler, alemán (1571-1630): sus postulados eran que “Todos los planetas se desplazan alrededor del Sol describiendo órbitas elípticas. El Sol se encuentra en uno de los focos de la elipse”. “El radio vector que une un planeta y el Sol barre áreas iguales en tiempos iguales”.
- Y también cien años antes que Galileo Galilei (1564-1642) que nació cerca de Pisa, Italia, quien a partir de 1595 se

inclinó por la teoría de Copérnico, que afirmaba que la Tierra giraba alrededor del Sol.

He aquí un marino y experto piloto, Juan Sebastián Elcano que aplicó las reglas de la navegación comprobando, al menos, las teorías de Copérnico, pues aplicó el cálculo de la longitud geográfica que solamente en alta mar se medía con el movimiento de los astros. Reivindiquemos su nombre y coloquémosle junto a estos otros grandes hombres de ciencia.

HARRERA HITZAK

Fernando Txueka Isasti
Adiskide Numerarioa

Othoi Çato Etchera

(...) *Ithakara itzultzeko bidaian abiatzen zarenean,
egizu erregu bidea luze izan dadin,
menturez betea, ezagutzez betea. (...)*

CONSTANTIN KAVAFIS

Ene lagun eta adiskide den Xabier Alberdi Lonbide, getariar-tutako zarautztarra dela dirudi, zeren gehienetan getariarrekin alderantziz izan ohi da. Xabierrek Baskongadaren sarrera hone-tako Harrera Hitzak egitea eskatu zidanean, noiztikakoa genuen elkarren ezagutza izan zen aurrena bururatu zitzaidana; bistan denez, bera urteetan zerbait gazteagoa baita eta ez genuen elka-rren berri.

Gure harremana 2007. urte inguruan hasi zen Getariako hiribilduaren mendeurrena zela-eta. Elkanoren figuraren alde historikoa berrikusiz, hausnartuz, ikertuz... hasi ginen elkarla-nean. Horrela joan zaigu denbora, bidaia aberats horretan *egiaz-ko sustraiak* sakontzen istant batean urrundu dira urteak, eta iraganetik beste ikuspegi berri bat ernaltzen hasi ginen etorki-sunari begira.

Lizundu eta zapuztutako urte umeldu haiek ez dizkiagu ahanzteko Xabier, ez baikaituzte hondartza ertzeko zakarren artean ikusi, udazkeneko ekaitz ostean suntsitutako arbolen enbor zaharrak bezala. Enbatari aurrera egin ahala, ahituta zegoen Elkanoren figuraren unibertsaltasuna handitzen joan da, eta bere V. mendeurrenako proiektu hura, galernaren ondoren *Fenix* hegaziaren antzera errautsetatik biziberrituz aireratu da. Hamarkada horretatik, etenik gabeko lankidetza harekin, ezin ukatu elkarrenganako adiskidetasuna, konfiantza, fideltasuna eta errespetu zientifikoa izan eta zor diogula elkarri.

Itsasoan urak handi dire, murgildu nahi dutenentzat... gure herriko lanak handi dire... Gure Xabier Lete poeta handiak zioen kantua-
ren lerroan.

Beraz, zu ere Xabier izan eta, *gure herriko lanak handi dire* eta zure enkargutxo hau apaltasun eta umiltasunetik jaso nuen *Harrera Hitz* hauek egiteko. Ohorea izateaz gain, ezin uka harrotasun ttanta batekin ere izan dela. Gaur hautatu eta paratu duzun lekzioak uka ezina da ardura eta zuhurtzia eskatzen dituela. *Elkanoren Sindromea* gai sakon eta berritzailea izateaz gainera, aurrerantzean urratzailea izatea ere espero dugu.

Anglosajoiek dioten *Landmarks* edo mugarriak inguratuko duen ataka irekitzen du zure hausnarketak, eta etorkizunean lan honek *unamak* motxean lotuko dizkie, Elkanorekin egin nahi dugun bezala, gure hainbat euskaldun unibertsal haietaz aurrerantzean egingo diren ikerketei.

Ikerketak ere, itsas munduan ohikoa den bezala, olatu arriskutsuetan *koasta* jartzea darama aurrera joateko, beti iparrorratzari begira, ausardiaz, banandua jaso eta bilduz, eta gardentasunarekin jakintzaren argia zabalduz jokatzeko eskatzen du. Beraz, aurrera beti. Gure kapitain-pilotu zahar haiek zioten moldean: *Uraunditan Busti egingo gaituk, baina tentuz, ito gabe!*

Lerro hauetan Xabier Alberdiren curriculumua osorik aurkezteak luze joko liguke, eta hala ere motz geldituko ginateke. Euskal Herriaren Historiaz eta bere itsas-kultura zabalaren jakitun eta maisu dugu, Xabier. Umetatik itsas munduari begiratzeak Zarauzko portu-txikiko batelen tostartetik, nola ez bere bizitzako eginkizunak eta ikerketak deiadar horretara ez bideratu! Aro Berriko Euskal Itsas Historian espezializatu zen, hain zuzen, bere doktore tesiarekin: *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*.

Hainbat artikulu zientifiko, ikerketa eta indusketa arkeologiko eginak ditu, eta lan multzo hauek aurkikuntza adierazgarriak azalarazteko parada eman dio. Euskal Herriko Antzinako Burdin Aro eta erromanizazio garaietako hainbat eta hainbat aztarnategitako indusketa garrantzitsuak zuzendu eta burutu ditu: hiribildu, jauregi, eliza, eliz aurre, eta abarretan, non ez, arkeologia lanak egin ditu eta horretan dihardu. Baita Arrantza eta ibai portuen inguruan ere: *Gipuzkoako Antzinako Portuguneak*, Deustuko Unibertsitateko ikerketa ildoaren baitan. Egun *Elkanoren Munduaren Lehen Itzuliaren V. mendeurrenaren* antolaketa batzordeko lanetan ari da buru-belarri. Era berean, aipatu behar dugu Estatu Batuetako *Ingalaterra Berrian* euskal marinelen aztarnak induskatzen dituen *Basque early presence in New England research project* egitasmoan ari dela. Eraitza harrigarriak espero ditugu hortik, ea Ipar Amerikaren historia aldatzen den!

Letra xumeetan idazten diren gure historia txikiak eta hurbilekoak ere, ordea, maite ditu Xabierrek. Iragan mendetako Itsas Memoriaren ondare etnografikoa jaso eta gordetzeko, bertirako euskal itsaso eta lehorreko bizimodu zahar hura gal ez zedin. Getarian *Kanpaia Elkarte*a sortu genuen elkarlanean, Emerico Sorazu getariar antropologoa zenaren itzalean, Pello Iribarren irmotasunarekin eta Xabier Alberdiren adorea. Horrela, Getariako soto eta ganbaretan baztertu eta ahaztuta edo galtzear zeuden ehunka traste zahar jasota ditugu dagokien izen eta erabilerarekin. Egun, ekimen harekin, ziurrenik Euskal Herrian

dagoen euskal marinelen tresna tradizionalen bilduma aberats eta osoena dugu.

Portuetan baztertutako zurezko ontzi tradizionalak berreskuratzen ere lan bikaina egiten ari zaigu Xabier. Begi-bistakoa da gure mila urteko itsas ondare material eta immaterialari oroimenezko mira berezia diola Xabierrek, eta testigutza eman ez Zarauzko portutxoan prest dauka bere antzinako *batel* zaharberrituari bela zabaldu ondoren itsasoratzeko. Baina bere curriculumaren itsas bidaia sintetizatzen duen beste funtsezko jarduera *Albaola Elkartean* da, bera baita elkarte honetako Ikerketa Saileko zuzendaria eta hainbat ikerlanen arduraduna.

Albaola aipatu eta bertan gaude ekitaldi akademiko hau burutzen. San Joanetako solstiziora hurbiltzen ari gara, udako atarikoan gaude, eta eguzkia gailurretara doan bezala, denboraleak gaindituz, San Joan baleontzia ere aurrera doa. *Albaola Elkartean* Itsas Faktoria honetan elkartu gara, XVI. mendeko baleontzia berreskuratu ondoren euskal Itsas Memoriaren santutegia gauzatzen eta gure herriaren ondare historiko galdua berreraikitzen ari diren esparruan. Hemen laburbiltzen da, has tapenean Erdi Aroko ilunpetatik hasi eta euskaldunek belaunaldiz belaunaldi apika landutako ontzigintzaren teknologia, eta bere eboluzioan itsas-teknologia honen garapena, hemen argitzen zaigu mendeetan euskaldunek itsas eta ozeanoetan gartu zuten nagusitasunaren zergatia.

Ez baita itsasoan ibiltzerik ahal jakinduriarik gabe, baina are gutxiago uretan, orekan, sendo, eta zuzen dabilen ontzirik ez bada! Eta euskaldun haien ekarpena Historiari, jakintza eta auzardiatik, ontzigintzako teknologia eta nabigaziorako gaitasuna eta kemena uztartzen jakitetik heldu zen. Hori aldarrikatzea eta azaleratzea dagokigu, gurea dugulako, gure Euskal Herriaren nortasun eta izaeran itsatsia izan delako.

Ipar Euskal Herriko antzinako elizen edo Zumarragako Antiguako baselizaren antzera, paregabeko egiturak oroitarazten

dizkigu Pasaiaiko itsas eraikuntza honek. Ontziaren hezurdurak gure hainbat herritako euskal dorretxe, etxaburu eta baserritako ganbara, mandio eta aletegitako abe, gapirio eta abarren joskerak ekartzen dizkigu gogora. Ontziola harrigarri honi eta San Joan ontziari so egitean, bada, galderak arrapaladan otutzen zaizkigu: ganbara eta zurezko ganga egiturak eta teknologia hura itsasontzien hezurduretara aplikatu ote zen? Edo alderantziz gertatu zen? Hau da, itsasorako ingeniartzako teknologia izan zen lehenik garatu zena, eta euskal arkitektura zibilera hedatu zen ondoren? Hor dugu adibidez, diogunaren lekuko izan baitaiteke, XVII. mendean Usurbilgo Aginaga auzoko *Mapil* ontziolako ontzi-maisua, aldi berean *Arrillaga Haundi* baserri ederraren ganbarako joskeren egile eta nagusia izan zena.

Euskal Herriko itsas portutako marinel eta merkatariak Ipar Atlantikora ere begira bizi izan zirela badakigu, historiografian doi-doi jaso izan bada ere. San Joan baleontzi honek ez gaitu Ternua, Labrador, Svalbard, Islandia edo Artikoko ur izoztuetara bakarrik eramaten. Harrigarria badirudi ere, ontzi mota berdinak izan ziren, antzinagokoak noski, Erdi Aroko XIII. mendetik Europako atlantiar Iparralde, Andaluzia, Berberia, Afrika eta Kanariar uharteaz gain, Mediterraneoko Alexandria edo Chios uharteraino zebiltzanak garraioan adibidez, baita geroago Amerikaren aurkikuntzan eta ondoren Pazifikokoan nabigatzen ibilitakoak ere.

Beraz, honi begira, euskaldunak zorionekoak gara eta esker on zuri Xabier Agote jauna, eta baita gainerako lankide, lagun eta babesle zareten guztiei ere. Miresgarria zuen eginbidea ametsak gauzatzean. Nola ez hunkitu hau ikustean!

Mende luzetan euskaldunen isileko jarduera hura, itsas bi-daia haiek, gaur erromantikotasunez eta epikaz beterikoak diruditen arren, badakigu ez zirela batere gozo eta atseginak izan. Gure itsas historia anonimo haien testuinguru hura gogor eta krudela izan zen, lantuz eta sufrikarioz josia eta herriminez

beterikoa. Honela dio XVII. mendeko euskal marinel anonimoaren *Ternuarako Partida triste*-n denbora haietako bizimoduaren lekukoak azaltzen digun poeman jaso:

9) Itsasoac nau bicitcen
harc berac nau ni icitcen
bici laburra emanen
guero berac eramanen

Eta beraien familiak Euskal Herrian itzuleraren esperoan. Horren lekuko dira aurkeztu berri diren 1757. urteko euskaraz idatzitako 50 eskutitz, Londreseko High Court of Admiralty artxiboetan aurkitutakoak. Aukera izango dugu, bada, garai haietako marinel eta euren familien historia txiki haiek eta testuingurua margotzeko!

Gaur bertan, Alberdi jaunak ikerketa lerro berri bat eskaini digu, beste ataka berri bat zabaldu du bere ikasgaiarekin: euskal historiak dituen zeinu eta gaixotasunak, utzikeriak, ezjakintasun eta akatsak plazaratu ditu, eta muinetik heldu dio gaiari; nola bestela! Azken hamarkadan Euskal Herriaren historiari buruz egindako ekarpenen artean, garrantzitsua da gaurkoa. Ekarpene hau, goi mailako ikerketa ezberdinak gurutzatuz, arrazoituz, ehunduz eta ekinez egina dago. *Elkanoren Sindromea* izen-datu ondoren, definitzera eta hitz lauz azaltzera etorri zaigu, eta hau ez da gau sargori batean amestutako elezaharra.

Orokorragoa izanik ere Xabierrek aurkeztutako gaixotasunaren eremua, gaur egun *Sindrome* honen jarraitzailek ere bada gure Euskal Herri txiki honetan. Hara euskaldun unibertsalak diren Loiolako Inazio edo Elkano, besteren artean tarteko dituztela, pertsonaia hauen historia eredugarriak erkinduz, gutxies-ten saiatzen ari direnak.

Nabarmendu behar da, ordea, euskal itsasgizonek merkataritzako ibilbideak ez ezik, Erdi Aroan ozeanoa ikertzeko bidaia ezezagunak ere egin zituztela, eta XIV. mendearen hasierarako

nabari ziren Ameriketako Ipar Atlantikoan Artikoko balea merkataritza-helburuaz ehizatzeo bidaiak.

Nabigazioko Artean aditu zen euskal-pilotu multzoa Mendebaldeko eta Ozeano Bareko itsasoetara sakabanatu zen, nahiz eta arrasto gutxi utzi oro har kronika historikoetan. Baina Migel Laburu jaunak erantzunak aurkitu nahian, galdera hau egin zuen: *Marinel haiek non lortu zuten gaitasuna, eta nondik atera ziren Elkanoren mailako pilotuak edo Juan de la Cosaren pareko ontzi-maisu eta kartografoak?*

Gure iritziz, hura guztia ez zen zorte ona medio edo zoriak halaxe nahi zuelako burutu, Erdi Aroko *Cádizko Euskal Pilotuen eskolatik* jasotako itsas zientzia eta maisutasuna bere eginda zutelako baizik. Erdi Aroan zehar *Cádizko* hiria giltzarria izan zen Mediterraneotik Ipar Atlantikorako itsas bidaietan; besteak beste, itsas-merkataritzaren alorrean. Ezinbestekoa zen itsasonzien helmuga eta abiapuntu gisa, eta euskal itsas-maisu eta pilotuen elkargunea ere bai, merkataritzako itsas zeharkaldi handietarako norabideak zekizkiten alturako pilotuak aldatzeko.

Erdi Aroko itsas tradizio historikoan, itsasoko beste erakunde antolaturik agertzen ez zaigunez gero, *Cádizko Colegio de Pilotos Vizcaínos* edo Pilotu Euskaldunen Elkargoa izan zen nabigazio-artearen ezagutza lortu eta zabaltzeko egon zen bakarra. Kantauri itsasoan mendeetan zehar pilatutako itsas nabigazioko jakinduriaren jabe zen. [Ikus orain, *Cádizko Euskal Pilotuen inguruan argitaratu berri dugun lan zehatzagoa* hemen: *El Colegio de Pilotos Vizcaínos de Cádiz. La otra historia marítima de los vascos: del Mare Nostrum al Pacífico, Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 8, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2016, 591-645].

Gure herri honek ez du Homero bat izan, (grekoek bezala). Historiografia anglosaxoian ez bezala, ehunka euskal nabigatzaileen itsas ekintza gogoangarriak ez dira nabarmendu eta aitortu.

tuak izan. Horregatik, Euskal Herriko historiaren pertsonaia haietaz oroitzera, Isaac Newton zientzialari jakintsuaren hitzak gureganatzen ditugu: *etengabeko aurrerakada egin badugu, erraldoi handi haiek beren sorbalda gainean eramán ginduztelako izan da*. Eta Errenazimenduko munduan Copernico, Galileo, Leonardo da Vinci edo Pico de la Mirandolaren antzeko zientzialari edota pentsalaririk izan ez bazen ere, haiek diseinatu eta burututako unibertsoa eta mundu teoriko hura, zientifikoki Elkanok egiaztatu zuen bere ekintza gogoangarriarekin planetari itzulia eman zionean. Eta bai, testuinguru historiko hartan erraldoi horietako bat izan zen.

Bi gertaera garrantzitsu ari dira gure artean bideratzen. Lehenik, San Juan itsasontziaren berreskuratzea, gure historiaren mugarri bihurtu da jadanik; bigarren, Elkanok munduari Lehen Itzuliaren Bosgarren Mendeurrena ospatzera goaz 2019-2022an.

Badugu itxaropena edo uste dugu *Elkanoren Sindrome* hau gaindi daitekeela, eta ez dugu horretara heldu arte amore eman-go, ezin dugu etsi. Gertakizun gogoangarri hau mugarri eta urrats handi bat izan liteke, gure herriak daraman *Elkanoren Sindromea* gainditzen hasteko. Garaian gaude gaixotasun kroniko honek dakarren porrota eta nihilismo hori bideratzeko, batik bat errotu ez dadin gure belaunaldi gazteengan.

Orain hilabete aurkeztu dira Getarian Lehendakariaren ahotik, aurkitu berri diren Elkanoren zortzi eskutitz, bere eskutik idatziak. Urrats pozgarria izan da, Euskal Itsas Historiaren ikerketa, ezagutza eta hedapena bultzatzeko, Xabierrek dioen bezala. Bi eskutitz ezagunak genituen, baina aurkikuntza hau garrantzitsua izan da gure historiako gailurretako bat areago ezagutzeko, bere nortasuna eta jakinduria zientifikoki aztertu, osatu eta zabaltzeko aukera eskaintzen digulako.

Galdu ez gaitezen, sendagarria ere behar da, ekintza eta ideien zentzuan, anima kolektiboa eta amankomunean osatuta-

ko espiritua lortu behar da denen artean, gure zaharrek *Euskal Gogoa* esaten ziguten hura. Desio eta pentsamenduen benetako sinergiak osatuz, adimen kolektiboa sortuz eta kontzienteki asmoak jomuga bateratua izan dezaten Elkanoren figura unibertsalaren inguruan. Xede honi grekoek *Egregora* deitzen zioten.

Berrikitan joan zaizkigu Baskongadako Juan Ignacio Uria eta Bixente Zaragueta, jaun eredugarriak, zalduntxo zaharren izaera eta jakinduria jasotzen eta transmititzen jakin zutenak. Unibertsoa eta gizakien ikuspegi holistikoa zeukaten haiek. Apika katebegiak urrutirantz luzatzen irakatsi ziguten maisuak itzaltzen ari dira. *Egregora* sortzen zen haien inguruan, beraien hitzetan, beraien gizabidean, beraien herriminean. Ea antzeko *egregora* sortzen den Euskal Herriko gizartean ere.

Constantin Kavafis poeta alexandriarrak zioen bezala, Joan Sebastián Elkano, gure pertsonai miresgarria, bere Itaka-ra iritsi da, bere itsasbide luze eta astunaren ondoren, ezinak eta sufrikarioak saihestu eta gaindituz, munduari lehenik itzulia garatu ondoren etxera ekarri dugu bidegilea. Eta Itsas-Errenazimenduko gizakien jakinduriaz hornitua datorkigu bere sorterriko portura, bere mezua entzun nahi ez duten eta itsu direnei bere ikasgaiarekin argitzera:

*Zeure adimenduan izan ezazu Ithaka beti.
Horrainoko etorrera da zure jomuga.
Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bete.
Hobe da anitz urte eder dirauela;
eta behin ia zaharturik uhartera heltzea
Bidean jasotako guztiarekin aberats,
Espero gabe Ithakak aberastasunik ematea.
Ithakak bidaia eder bat eman zizun.
Bera gabe ez zinatekeen abiatu.*

Iparraldeko Izarrari so (marinelen Stella Maris) atsedetik eta lurrik ia ukitu gabe, goizeruetan hegadan bidaiatzen duen itsas hegazti talaiaariaren gisa, ene lagun Xabier Alberdi Lonbidek iraganeko urtetan euskaldunen mendetako **uherari** jarraitu dio

zangaren antzera. Ulises baten moduan, **itsaslaminen aiimak** eta **trabainarru zakarrek** irentsi gabe datorkigu, eta gaur, oroimen galduaren gure itsas-pilotu zahar haien irudira, bere **be-laontzian** arin dator uhinen gainean, **poparetik** haizearen ufada lagun duela iritsi zaigu moila muturreko atarira, Baskongadako portu-zaharraren lehorreko **antxirrira...** bere hausnarketa eta indusketen altxorrekin... Ator hadi barrura, jakin-mineko Adiskide eta denboretako jakintza eta aniztasunen gordailu den arragora!

Ongi etorri, Xabier, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartera!

**“ELKANOREN SINDROMEAREN
GAINDITZEA:**

**EUSKAL ITSAS HISTORIAREN IKERKETA, EZAGUTZA
ETA HEDAPENA BULTZATZEAREN BEHARRA**

Sarrera ikasgaia
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

HIZLARIA
XABIER ALBERDI LONBIDE

Pasai San Pedro. Albaola Itsas Kultur Faktoria
2016ko ekainaren 19a

1919ko udan Sociedad Vascongadoak, hau da, gure erakunde honek berak, orduan horrela deitzen zenak, Juan Sebastian Elcano getariarrak burututako Munduari Lehen Biraren IV. mendeurrenaren oroitzapena antolatuko zuen batzorde bat sortu zuen. Espainieraz hitz egiten ez zen gainontzeko herrialdeetan Elkano erabat ezezaguna zela oharturik, pertsonaia hau nazioartean ezagutzea emango zuten hainbat ikerketa eta ekintza kultural abiaraztea zen oroitzapen honen helburu nagusia. Eginkizunik garrantzitsuena Getariako San Anton mendian gutxienez 40 mko garaiera izango zuen monumentu bat eraikitzea izan zen. Dena den, arazo ekonomikoak zirela eta ez zen egitasmo hori nahi zen handitasunez burutzetik izan, eta bere ordeztu, gaur egun Getarian ikusgai dagoen Elkanoren monumentua eraiki zuten.

Honela, Euskal Herrian oso eragin larria duen gaitz bat finkatua geratu zen: gure itsas ondarearen ahanztura eta gutxiespena. Gaitz hau “Elkanoren Sindromea” deituko dugu euskal itsas historiako ordezkariarik unibertsalenaren oroimenez. Orduz gero gaitz honek okerrera egin du gainera, arrazoi hauen ondorioz:

Lehenengoa, euskal kulturak duen izaera minoritarioaren ondorioz, ez dauka eraginik espainiarra, ingelesa edo frantziarra bezalako nazioarteko kultura handietan.

Bigarrenkoa, XIX. mendean Frantzia eta Espainiako Historia Nazionalak eraiki zirenean bigarren mailan utzi zituzten euskal ekarpenak. Espainiari dagokionean nazio kontakizunaren ikuspegi “castellanista” eraiki zen, gainontzeko aukera guztiak baztertuz.

Hirugarrenkoa, Espainiako “Historia Nazionala”-ren erai-kuntza prozesu bereziak ondorio larriak eragin ditu. Historia Nazional honek Aro Berriko Espainiako historia gainbehera prozesu bat izan zenaren ustea egi bihurtu zuen. Eteten ez zen espainiar gainbehera eta ustelkeria hau, besteak beste, XIX. mendeko hainbat aldaketa politiko eta Francoren Erregimena bera justifikatzeko arrazoi nagusietako bat izan zela ez dugu ahaztu behar. Tamalez, 60 eta 70, hamarkadetan Espainiako historiografiaren berrikuntza garatu zutenek ere, interpretazio hau bere horretan bereganatu zuten eta gaur egunerarte indarrean jarraitu du.

Euskal historiografia, Espainia eta Frantziakoaren morroi dena, ez da muga horiek gaingintzeko gai izan. Egia da XX. mende hasieran, Berpizkundearen baitan, euskal itsas historiaren bertako eta nazioarteko ezagutza bultzarazteko hainbat ikerlan eta ekimen habian jarri zirela, baina ondorengo hamarkadetako gertakariak eten egin zuten saiakera. Ondorioz, euskal historiografiak zenbait gai landu dituen arren, esate baterako, XVI. mendeko ozeanoz handiko arrantza edo ontzigintza ez da orokorrean gure itsas ekarpenek mundu mailan izan duten eragina aldarrikatzeko eta ezagutarazteko gai izan. Horra, beraz, Elkarenen Sindromea deitzen duguna, eta hona hemen bere ondorio larriak: Historia Unibertsalari euskaldunok egindako ekarpenak historiografia hegemonikoen artean ezezagunak izaten jarraitzen dute. Horrek gure herriaren desprestijioa dakar: Europako gainontzeko herrialdeak ez bezala, bere ekarpen historiko garrantzitsuenak ezagutzen, eta aldarrikatzen ez dituen herria. Gure herria benetako subjektu historiko bat dela kontsideraturik al dago? Guzti horrek historia zientifiko eta akademikoaren ganako arduragabekeria eragin du Euskal Herrian eta ondorioz, zehaztasun zientifikorik gabeko eta helburu politiko jakinak dituzten interpretazioen loratzea eragin du gainera.

Ikasgai honen helburua beraz, historialariak, ikerketa eta irakaskuntza erakundeak eta orokorrean gure gizartea fun-

tsezko erronka kultural baten aurrean aurkitzen garela aldarrikatzea da. Hauxe da erronka: gure historia eta, batez ere gure itsas historia, ikertu, prestijiatu eta aldarrikatu beharra. Eta hori horrela dela frogatu dezagun, Juan Sebastian Elkanoren adibidea erabiliko dugu diskurtso honen ardatz moduan.

1. - JUAN SEBASTIAN ELCANO, MUNDUAREN
LEHEN ITZULIAREN LAUGARREN MENDEURRENEAN
ASMATUTAKO PRODUKTU BAT AL DA?

Euskal historiografiak pertsonaia honi eman dion trataera eskasa kontuan izanda horrela dela pentsa liteke. Hau da, bere ekarpena eta Elkano bera hain funtsezkoak al dira? Hala badira, zergatik ez dira ezagunak eta onartuak? Elkano benetan lehen mailako pertsona al da edo ez al da Magallanesen ondorengo bat besterik? Espainiako Historia Nazionalaren aita den Canovas del Castillo-k honela definitu zuen Elkano: “modesto maestre, más práctico que científico y antes que capitán, aventurero”. Munduak beraz, lehen itzuliaren meritua Magallanesi egozten dio eta Elkano gehienetan ezezagun bat besterik ez da.

Baina gauzak ez ziren beti horrela izan. Bere garaian, Carlos V enperadoreak, hau da, orduko erregerik boteretsuenak lehen itzuliaren meritua onartu zion “Primus Circumdedisti Me” dibisa emanaz. Eta aurrerantzean, mendeetan zehar, euskal ekonomiaren oinarriak itsasoetan jarraitu zuen bitartean, Elkanoren ondareak Gipuzkoan zegoen fama, loria, ohore eta harrotasun iturri nagusia izaten jarraitu zuen. Itsas jarduera nagusiengatik aritu ziren hainbat leinu ondare hau eskuratzen saiatu ziren mendeetan zehar. Elkanotarren leinua galdu ondoren XVI. mende amaieran beste itsasgizon getariar handi baina ezezagun bat, Antonio de Urkiola jenerala, izan zen ondare horren jabe. Bere seme Baltasar de Urkiola 1648an hil zenean, Bartolomé de Amezketa kapitain donostiarra eta don Pedro de Echave Asu merkatari getariarra saiatu ziren bere ondasunak eskuratzen.

18.000 dukateko balioa zuten ondasun guztien artean preziatue-
na Elkanoren ondarea zen. Hau zen benetan guztiek eskuratu
nahi zutena. Amezketaren abokatuaren hitzetan: “...es de mucho
valor y estimación la casa que fue de Beltran delcano que esta inclusa
en dichos bienes, de quien tienen los posehedores también sus Armas y
por ser estimado el primero que rodeo el mundo como lo manifiestan sus
rotulos, armas y divisas, es alaja de tanto lustre y estimación en toda
aquella tierra que por ella sola hubiera cavalleros que hubieran dado la
cantidad en la que se remataron todos los dichos bienes...”.

Auzia 1672 arte luzatu zen eta azkenik bi zaldun horiek
akordio batetara iritsi ziren: Amezketaren Elkanotarren etxearen
orubeaz jabetu zen bitartean, gainontzeko ondasunak, hau da,
hilobia, armarría eta Elkanoren artxibo-dokumentazioa Echave
Asuren eskuetan geratu zen. Elkanoren artxibo-dokumentazioa
Echave Asuren eskuetan geratu zen. Elkanoren entzuteak eta
euskaldunek zioten begiruneak bere horretan jarraitu zuten
XVIII. mendean, hau da, Ilustrazioaren eta Arrazoiaren mendean
ere. Horren lekuko, urte luzez Filipinetako Konpainiaren zer-
bitzura Txinako Cantonen lan egin ondoren Getariara itzuli zen
don Manuel de Agote y Bonechea jauna da. Bere jaioterrira heldu
eta berehala Elkano omentzeko lanetan hasi zen. Batetik, 1799an
Elkanotarren dorretxe erorian Madalenako ermitaren aurrean
hasi zuen eta, bestetik, harresietako sarrera nagusiaren aurrean,
euskaraz, gazteleraz eta latinez idatzitako testu zuen marmo-
lezko Elkanoren irudia jarri zuen 1800. urtean.

2.- ELKANOREN BENETAKO EKARPENA: KASUALITATE HUTSA AL DA?

Elkano Laugarren Mendeurrenean asmatutako produktu bat
ez dela frogatu dugu, baina orduan munduak zergatik onartzen
dio Magallanesi lehen itzuliaren loria eta meritua? Espainiako
historialariek orokorrean espedizioaren sorrera eta antolaketa
Magallanesi bakarrik dagokiola esaten dute. Aldiz, Elkano beste

baten egitasmoa bukatzea tokatu zitzaion bigarren mailako pertsonaia bat dela diote. Eta guzti hori nahiz eta badakiten Magallanesen helburua ez zela munduaren itzulia egitea, Moluketarako itsasbide eraginkor bat aurkitzea baizik; eta nahiz eta badakiten helburu horretan porrot egin zuela Magallanasek, eta hainbat urte geroago Andres de Urdanetak lortu zuela balentria hori; eta nahiz eta badakiten bigarren espedizioan Elkano hil zenean bere konfiantzazko gizona zen Urdanetak hauxe idatzi zuela: *“Bien creo que si Juan Sebastian de Elcano no falleciera, que no arribáramos a las Islas de los Ladrones tan presto, porque su intención siempre fue de ir en busca de Cipango, por esto se llegó tanto hacia la tierra firme de Nueva España”*, alegia itsasbide horren soluzioa Elkanok susmatzen zuela. Hortaz, Magallanesi aitortzen diote Munduaren Lehen itzuliaren meritua nahiz eta badakiten Moluketara iritsi aurretik, Espainiako erregearen aginduen aurka bertakoen arteko borrokaldi batean hil zela Filipinetan. Fisikoki ezinezkoa den azalpen horren aurrean, ez da ba harritzekoa itsas historia entzutetsu bat izateak duen garrantzia oso ondo dakiten zenbaitek lehen itzuliaren meritua bereganatzen saiatu izana, adibidez ingelesek Drake-kin egin duten bezala.

Argi eta garbi geratzen da beraz, eta Munduaren Lehen Itzuliaren Laugarren Mendeurrena Ospatzeko batzordea osatzen zuten kideek ere horrela aitortu zuten, Magallanes goraitpatzea, merezimenduzkoa bada ere, Aro Berriko esploraziorik nagusienaren antolaketan, kudeaketan eta ejekuzioan euskaldunek izan zuten funtsezko papera isiltzeko eta baztertzeko argumentua izan dela. Besteak beste, bazterturik geratu da espedizioa Sevillako Kontratazio etxeak antolatu zuela. Etxe hori, Euskal Herriko eta Gaztelako armadore eta merkatarien interesen arabera sortu zen eta une hartan euskaldunek zuzentzen zuten hein handi batean: Tesoreroa Sancho de Matienzo zen, Enkarterrietako muga dagoen Mena haranekoa, Faktorea Ochoa de Isasaga eta Kontularia Juan Lopez de Recalde gipuzkoarrak ziren. Bazterrean geratu da, euskal itsas teknologia izan zela

balentria hau egitea posible egin zuena. Bazterrean geratu da euskal merkataritza sareak izan zirela espedizioa prestatu eta hornitu zutenak: horniketa Nicolas de Arteari eskatu zion Kontratazio etxeak eta honek Bilbon bildu zituen Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herrietatik ekarritako gaiak, Sevillara bidaltzeko. Bazterrean geratu da gainera euskal nabigazio eta kosmografiaren garapena, horren adierazle nagusia Elcano bera delarik, Molukasetatik Iberiar penintsularaino ia lurrik ikutu gabe bakar-bakarrik nabigatu zuena. Bazterrean geratu da euskaldun giza ekarpena ere: amaitu zuten 18 gizonetatik lau, hau da, ia laurdena, euskaldunak ziren: Elcano bera, Juanes de Acurio pilotu bermiotarra, Juan de Arratia marinela Bilbotarra eta Juan de Zubileta paje Barakaldoarra.

Egia da, 18 gizon horien artean bizirik iritsi zen Antonio Pigafetta idatzi zuen espedizioaren deskribapenean ez zuela Elcano aipatu ere egin, elkarren artean izan zituen istiluen ondorioz. Eta egia da Pigafettaren idazlana hainbat aldiz argitaratua eta itzulia izan zela, eta Errenazimendu garaiko Europa hark ezagutu zuen espedizio buru bakarra Magallanes izan zela. Baina horrek ez du arintzen batez ere euskal historialariok eta euskaldun guztiok daukagun ardura eta errua munduko itsas historiari gure herriak egin dizkion ekarpen funtsezkoak, besteak beste, aipatu berri dugun Munduaren Lehen itzulia, ezagutzera ez emateagatik.

3.- ONDORIO GISARA: XXI. MENDEAN ORAINDIK NAOAK ERAIKITZEA BEHARREZKOA DUGU

Orain arte Elkanoren Sindromearen jatorriak eta ezaugarriak deskribatu ditugu, baina, horretaz gain, gaitz hau gainditzeko ezinbestekoa da terapia egokiak dituen bi sintoma nagusiaren aurka zuzendu behar ditugula gure ekimen terapeutikoak: historialarion konplazentzia eta euskal itsas historiako gertakari objektiboen ezezagutza.

Askotan iruditzen zait euskal historialariak konplazentzian erorita gaudela. Joandako bost hamarkadetan historiografiak izan duen garapenak, historialariok asko egin dugula eta gure ekarpenak funtsezkoak izan direla pentsatzera garamatza. Baina horrela al da? Egia da gure historiako hainbat arlo eta gai aztertzen eta ikertzen lan asko egin dugula, baina urte hauetan zehar sortu dugun ezagutzak benetan balio izan al du euskal historiak mundu osoan izan duen funtsezko eragina aldarrikatzeko eta etxean eta atzerrian ezagutzera emateko? Ez al dugu munduko gure bazter honetara mugatzen den historia errejionalista bat besterik eraiki? Gure historiak bizi duen egoera hein handi batean horixe dela frogatu dela frogatzen duen hamaika adibide eman ditzaket. Baina adibideak aipatzeko garaian ez naiz utzi-keriaren ezaugarri nagusienetako bat den joera batean eroriko: besteen lanaren gutxietea eta kritika irrazionalean alegia, tamalez euskal historialarion artean oso hedatua dagoena. Horregatik nire burua hartuko dut euskal historiografiak bizi duen konplazentziaren adibide gisa.

Bai, hemen jakitera eman zaizuen bezala joandako azken 25 urteetan hainbat ikerketa egindakoa naiz, baita zenbait aurkikuntza egindakoa ere. Zenbaiten aburuz, gainera goraipamenak merezi dituzten ekarpenak dira eta horregatik bildu gara gaur guztiok hemen. Baina ekarpen horiek benetan aldarrikatu al dute euskal itsas historiak mundu osoan izan behar luken eragina? Erantzuna nik emango dizuet: Ezer gutxi; Nire ekarpenen helburu nagusia euskal itsas historiaren bilakaeraren eta funtzionamenduaren arrazoiak aurkitzea, ikertzea eta ulertzea izan da.

Gainontzeko historialariek in batera euskal historiografiaren marfilezko dorrearen barruan jardun naiz gure itsas historiaren motorraren arrazoi nagusiak gainontzeko arrazoiengandik berezi nahian eta kontrako argumentuak dituzten historialariei gogor eginaz. Kontenplazioaren marfilezko dorrea, bertan bildurik gaude euskal historiografiak dituen behar

nagusienak interpretazio alorrekoak direla uste dugun guztiak: interpretazio eskola batekoak garenak beste gainontzeko eskola guztietakoak direnen aurka lehian.

Horra azken bost hamarkadetako euskal historiografiak izandako garapen handiaren arrazoi nagusia: Francoren garaian ez bezala, atzerriko kultura hegemonikoetan garatu dituzte interpretazio joera eta eskolenganako irekiera. Horra non dagoen euskal historiografiak gaingitu ez duen koska: atzerriko historiografia hegemonikoek aspaldian, XIX. mendeko positibismo garaian finkatu zituzten zeintzuk diren munduaren historia moldatu zuten gertakari eta pertsonaia nagusiak. Haien ondorengoek gaurdaino, gertakari horiek ulertzeko interpretazio joera berrizaleak landu dituzte, baina XIX. mendean finkatutako eta objektibotzat dituzten munduaren historiako giltzarri izan ziren datu, gertakari eta pertsonaia zehatzen zerrendak apenas aldatu gabe. Eta guk interpretazio joera hegemoniko horiek gureganatu besterik ez dugu egin, aurretik beste funtsezko lan asko egiteke dagoela aldarrikatu gabe. Ez ditugu hortaz, oraindik finkatu munduaren historian funtsezkoak izan ziren euskal datu, gertakari eta pertsonaia, hau da, datu objektiboak, ez interpretatiboak. Ondorioz, ez ditugu ezagutzen eta ez ditugu ezagutzera ematen eta aldarrikatzen. Inor gutxiesteko nahirik gabe, errealitate bat agertzeko guztioi: zuetako inork ba al du mundu mailako itsas historian funtsezko ekarpenak egin zituen Francisco de Beroizen entzuterik? Horra ba gure herriak aurrean daukan erronka kultural nagusienetakoa, nagusiena ez bada.

Eta oneraino iritsita eta gauden lekuan gaudela, argi eta garbi aldarrikatu nahi ditut azken bi hamarkadetan Elkanoren Sindromeari aurre egiteko ekintzarik eraginkorrenak burutzen ari den Albaola Elkartearen ekarpenak. Mundu osoan harridura pizten ari diren ekarpenak dira eta nazioarteko kultura erakunde nagusieneko askoren onspena eskuratu dute gainera. Besteak beste aipatu behar dizuet egun gutxi dela UNESCO-k San Juan Baleontziaren eraikuntzari eman dion babesia.

Tamalez, etxean baina entzute handiagoa du atzerrian Al-baolak eta lehen deskribatu dudan utzikeria horren eraginez hainbat eta hainbat esamen, traba eta eraso jasandakoa da, baina hor dirau tinko 1565ean Red Bay-en ondoratu zen euskal ba-leontziaren, hau da munduan hoberen ezagutzen den XVI. men-deko itsasontziaren erreplika zehatza eraikitzen. Eta besteak beste, euskal nao haiek munduko itsasontzien artean teknologi-koki aurreratuenak zirela, haiei esker munduko itsasbide na-gusienak aurkitu zirela eta munduari itzulia eman ziola nazioar-tean aldarrikatzen. San Juan naoaren erreplika zehatzaren erai-kuntza, ziurrenik aspaldian Euskal Herrian gertatzen ari den gertakari kultural garrantzitsuena da eta GUZTIOK saiatu behar genuke gure herriaren historian benetako mugarri bat izatera iritsi dadin. Bidea beraz, hasia dago eta asko daukagu jokoan, gure prestigioa eta nazioarteko onarpena daude jokoan, eta San Juanaren eraikuntza eta atarian daukagun Munduaren Lehenen-go Biraren Bostgarren mendeurrena bezalako aukerak dira gure herriak inolaz ere galdu ezin dituenak.